



<b>ahantziezin</b> 'ahaztezina'	«Bada, bigarrena, <b>ahantziezina</b> . Doministikuka, azukreak, malkoak, eta hipopotamoak eta zakilo-dantza lehenengoan bezalaxe.»	(45)
<b>ahari</b> 'aharitoa, marroa'	«...baina eske ai! pasiloaren bukaeran <b>aharia</b> zegoen! Adarretik adarrera! Sekula ez nintzen ohitu...»	(15)
<b>aitzindari</b> 'biderakuslea, aurrelaria'	«Sukaldean barrez ari ziren. Garboso asko sartu nintzen arropa zikina nekarrela, kakaztutako kantzontziloak <b>aitzindari</b> »	(80)
<b>aldaka</b> 'mehaka, mokorra'	«...haragi eta hezur ezin politago haiek, <b>aldakak</b> eta bikini gorriaren barneko bekatu-eremua, muino apal sendoak. »	(52)
<b>amorde</b> 'ugazama, amaizuna'	«...ahizpa ipuinetako <b>amordearen</b> alaba, itsusia bai behintzat; gaiztoa? Ez nekien artean;»	(11)
<b>apopilo</b> 'arrotza, ostataria'	«...batez ere Schopenhauer eta Hegel. Donostiara jun beharko det, zure etxera <b>apopilo</b> .»	(18)
<b>aratz</b> 'garbi, txukun'	«Neuk dantzarako gogorik ez, <b>aratz</b> eta birjin Ixabelentzat.»	(93)
<b>arras</b> 'oso, erabat'	«Indigena batek seinalatu zidan bidea; tipoak ulertu nire galdera, eta <b>arras</b> harriturik ni, euskeraz komunika nintekeela eta.»	(7)
<b>arrats</b> 'arratsaldea, arrastia'	«Alergia, ale gorria, alegrantziatzko <b>arratsa</b> , aleluia!»	(54)
<b>artean</b> 'oraindik'	«...ahizpa ipuinetako amordearen alaba, itsusia bai behintzat; gaiztoa? Ez nekien <b>artean</b> ;»	(11)
<b>aska</b> 'ganbela, manjatera'	«...logela, sukaldea eta komuna zeuzkan; lau hankak, gorputzaren euskarri, egongelan; burua sukaldean sartuta, <b>askan</b> , belar artean.»	(13)
<b>aztoratu</b> 'asaldatu, urduritu'	«Animaliek beldurra igarri eta gehiago nola <b>aztoratzen</b> diren, egundoko ahaleginak egin nituen ikara ezkutazten, baina ...»	(9)
<b>barregarri gelditu</b> 'irrigarri, komiko geratu'	«Nekizkien maldizio guztiak esanda, indarrak eskuratu nituen nondikbait, ez nengoen <b>barregarri gelditzeko</b> prest, ez jauna!»	(42)
<b>begietaratu</b> 'ikustarazi, begietara eman'	«Baserri aldera bideratzerakotan nengoela zera <b>begietaratu</b> zidan nire kultura zinematografikoak: nola jotzen zuen zubiko zutabe ...»	(83)
<b>bekozko</b> 'betiluna, betondoa'	«...gurasoak intzesto-ekzkontza eginak, ze igual-igualak ziren, sendoak, boronoak, <b>bekozkoak</b> ;»	(11)
<b>builaka</b> 'zarataka'	«..."OIN EZ JUANITAAA!" esango zion, adarretik heldu, kopetaldean jo <b>builaka</b> , ni paretari Spiderman baino erantsiago, baina eske ai!...»	(15)
<b>dema-harri</b> 'apostu-harria, proba'	«Beraz, aurrera eta ezkerreara, tuneletik; kostatu egingo zitzaidalda, oinez eta <b>dema-harriari</b> tiraka;»	(7)
<b>desesperatu</b> 'etsi, itxaropena galdu'	«Baserria hirurehun metrora zegoen, ikusterik ez, handik nire garrasi <b>desesperatuak</b> entzuterik ere ez.»	(83)
<b>ditxosozko</b> 'zorionekoa, dohatsua'	«Burukoa badakizue zergatik, eta azkurea belarri, surtzulo, aho, begi eta abarretan <b>ditxosozko</b> belarra neukalako, eta segituan ...»	(65)
<b>domina</b> 'medaila'	«...eta bere lehenengo helburua lortu ez bazuen ere (Agamenon), iritsi zuen, ordea, Ulisesentzat brontzezko <b>domina</b> .»	(34)
<b>erantsi</b> 'itsasi, atxiki'	«..."OIN EZ JUANITAAA!" esango zion, adarretik heldu, kopetaldean jo builaka, ni paretari Spiderman baino <b>erantsiago</b> , baina eske ai!...»	(15)
<b>erauzi</b> 'errotik atera'	«Laster ekin zion <i>vendettari</i> , besoa <b>erauzi</b> nahi zidan, bide batez eskua txirtxildu eta bizkarrezurra desegin, hori dena irribarretsu.»	(90)
<b>erletu</b> 'erle bihurtu'	«Eztizko neskatalak. Luis-Koldo eta Joxe Mari <b>erletzen</b> hasiak »	(88)
<b>ernegarri</b> 'sumingarri, sutan jartzekoa'	«...eta "i" ozen eta barre ttiki zoroz betetako hizkera <b>ernegarria</b> (neska gajoari hitzik gabea nintzen artean).»	(30)



<b>erra(tu)</b> 'alderrai ibili, galdu'	«...belaunetaraino sartuta. Lurrunetan espektro letagindunak, deabru sega-azkazaldunak, arima <b>erratiak</b> paradisu bila...»	(79)
<b>errai</b> 'haltsarra, muina'	«Neskatxak eskua hartu zidan; nire barruan bihotza beste <b>errairik</b> ez.»	(85)
<b>errapi(ak)</b> 'errapea, ugatza'	«Eztek pa hori, hori gure Juanita dek, ez al dituk <b>errapiak</b> ikusten»	(14)
<b>erronkari</b> 'erronkazalea, desafiatailea'	«Han segitzen zuen espektro <b>erronkariak</b> , aurrera ezinik nahi adina denboran edukiko ninduelakoan.»	(101)
<b>eskuare</b> 'arrastelua, eskutaila'	«Hura segan eta ni <b>eskuarearekin</b> . Segaldi bakoitzean hondamendia hango bizidun ttikientzat.»	(61)
<b>euskarri</b> 'sostengu, eustailu'	«...logela, sukaldea eta komuna zeuzkan; lau hankak, gorputzaren <b>euskarri</b> , egongelan; burua sukalden sartuta, askan, belar artean.»	(13)
<b>galbide</b> 'bekatubidea, erorbidea'	«Niri, berriz, sen atabikoa abisuka ari zitzaidan. Itsas-lamiak, edo lehorrekoak, <b>galbidea</b> dira gizasemeentzat, sirena-kantaren lilurak...»	(88)
<b>gandu</b> 'lausoa, geuna'	«Halako <b>gandu</b> antzeko zerbait begietan, non eta inguru basati hartan.»	(46)
<b>gorotz</b> 'mokordoa, simaurra'	«Izaki mustro bat harrika ari zitzaidan, eta "kakaka", maldizioka; <b>gorotz</b> pusketako batek bete-betea eman zidan aurpegian.»	(73)
<b>herabea</b> 'lotsatia, lotsakorra'	«Miren psikologoa, <b>herabea</b> eta euskaldun-fededuna.»	(71)
<b>herra</b> 'gorrotoa, gaizkinahia'	«Linboa, argitsu eta epela, umez bete dago, erru eta <b>herrarik</b> gabeko arimak, "zu, hain handia, hemen, nola?"»	(59)
<b>horratik</b> 'hala ere, alabaina'	«Ixabelek intxaur batzuk kraskatu zizkidan, erraz asko, ez nuen <b>horratik</b> nire ar-indarraz liluratuko»	(17)
<b>hunkibera</b> 'sentikorra, minbera'	«Gau horrek, oraindik ere, sakonki grabaturik dirau nire bihotz <b>hunkiberan</b> .»	(45)
<b>igarri</b> 'nabari, antzeman'	« Animaliek beldurra <b>igarri</b> eta gehiago nola aztoratzen diren, egundoko ahaleginak egin nituen ikara ezkutazten, baina ...»	(9)
<b>imintzio</b> 'keinua, ihakina'	«...ezta Anglo-boerrear ere ezin ibilia izan, 36-39-koa geratzen zen, eta egiten zituen <b>imintzio</b> eta keinazioekin alde batean bera bakarrik...»	(62)
<b>irri-karkara</b> 'irri-karkaila, barre algara'	«Harri-botaka eraso zidan, mekauen Satanas! Atzera egin nuen korrika, <b>irri-karkara</b> makurra belarrian.»	(100)
<b>irrika</b> 'irrikitan, grina'	«...mustro marroi geldia, soroak haren <b>irrikaz</b> omen.»	(78)
<b>iskua</b> 'zekorra, zezenkoa'	« <b>Iskua?</b> ... <b>I-dis-ko-a</b> , haunditzen danian zezena.»	(14)
<b>itxitura</b> 'herstegia, hesia'	«...nonnahi, dozenaka gizaseme onanismokeriatan zebilela Ixabelengatik, eta ni han, urrutian, otsoak <b>itxitura</b> gainetik ari zelarik!»	(33)
<b>izerbera</b> 'izerterraza, izerkorra'	«Ixabel <b>izerbera</b> zen, orduan ere ttanto distiratsuz bete zegoen.»	(51)
<b>kirastu</b> 'hatsitu, sunda bota'	«Ibaiak (akaso neolitikoan ibai izanak) <b>kirasturik</b> guztiz giroa.»	(7)
<b>kirrinkada</b> 'kirinka, girringa'	«Hiru pauso. Pareta. Eskuinera. Ate bat. Irekitzen hasi nintzen. <b>Kirrinkada</b> , mekauen satanas! (pentsamentuaz)»	(23)
<b>kutixi</b> 'gurari, nahikari'	«... inondik ere ez nituen erlazonatzen <b>kutixi</b> horiek aziendekin, nik erosketak supermerkatuan, eta ...»	(13)
<b>laket</b> 'atsegin, gogoko'	«Guztiz <b>laket</b> zait herriko jende xehereen pozaldi jolastiarra.»	(87)



<b>lastargi</b> 'euzi, xirio, tortxa'	«Ziklopeak ixten zidan pasoa. <b>Lastargia</b> eskuan, bide-erdian tente-tente, ilunak aurpegiaren alde bat jaten ziolarik...»	(100)
<b>lausoa</b> 'gaundua, geuna'	«Ireki nuen leihoa, alerjiaren <b>lausoa</b> ote zen.»	(48)
<b>letagindun</b> 'betagidun'	«...belaunetaraino sartuta. Lurrunetan espektro <b>letagindunak</b> , deabru sega-azkazaldunak, arima erratiak paradisu bila...»	(79)
<b>likits</b> 'lizun, haragikoi'	«"...itzuliko naiz zuregana, ozeanoak zeharkatuz, ziklopeak menderatuz eta pretendiente <b>likits</b> horiek banan-banan estrangulatuko ditut."»	(33)
<b>makur</b> 'gaiztoa, bihurria'	«Harri-botaka eraso zidan, mekauden Satanas! Atzera egin nuen korrika, irri-karkara <b>makurra</b> belarrian.»	(100)
<b>maldizio</b> 'madarikazioa, biraoa'	«Esandako <b>maldizioak</b> , egindako ahaleginak, dena alferrik; kaka-palanka hura ez zen mugitzen eta kaka artean segitzen nuen.»	(82)
<b>malkar</b> 'aldapa, malda'	«...hemen bueltaka utzi eta korrika baserrira..eta bitartean <b>malkarretik</b> behera erortzen bada? Morganez moztu egingo lizkidake. »	(83)
<b>mandio</b> 'ganbara, goianengo'	«Behean sukaldea eta ukuilua; goian logelak, komuna eta <b>mandioa</b> ; telebistarik ez inon.»	(15)
<b>masta</b> 'palua, haga'	«Es ke ni masta nagusian lotua nintzen. ... <b>Masta</b> nagusia lotua? Ah! Kirk Douglas bezala!»	(96)
<b>matrail</b> 'masaila, baraila'	«Ezpainak haren <b>matrailera</b> , ez nintzen hitz egiteko gauza; hark beste bat bueltan...»	(85)
<b>mikatz</b> 'mingotza, garratza'	«...txuletoiak Joxe Mariren kontu, eta zin horrek ederki gozotu zituen despedidaren <b>mikatzak</b> . Izan zen, halere, malkorik, ...»	(108)
<b>muino</b> 'hegia, tontorra'	«...haragi eta hezur ezin politago haiek, aldakak eta bikini gorriaren barneko bekatu-eremua, <b>muino</b> apal sendoak. »	(52)
<b>musugorri</b> 'aurpegi kolore gorri'	«Mustroek aldegin eta printzesa zetorkidan, nire adineko neska <b>musugorri</b> -urre-rubia-irribarretsu bat.»	(9)
<b>obratu</b> 'kaka egin, libratu'	«Zuek badakizue zer den traktore batean mila buelta ematea? Tar-tar-tar tor-tor-tor eta inguruko behi guztiek <b>obratutakoa</b> ?»	(84)
<b>okurritu</b> 'bururatu, otu'	«Ia bi ordu! ia bi ordu pasa dituzu bueltaka kontaktoa kentzia ez zaizulako <b>okurritu</b> !- eta seeeeegi barrez.»	(85)
<b>oldartu</b> 'amildu, punpatu'	«... eta behiak eta Manolete gizarajoaren akabatzailea, jendea ikusi orduko, aurreraka <b>oldartzen</b> ziren, jana zetorrelakoan, eta pasatzen...»	(15)
<b>peto</b> 'jatorra, oso'	«...ez nuen inongo komunikazio-arazorik eduki. Erdaldun <b>peto-petoa</b> zen.»	(109)
<b>pitzadura</b> 'arrakala, arraildura'	«...baserritik laurehun metrora beste bat zegoen, zahar-zaharra, <b>pitzaduraz</b> josia, armiarma-sareen, huntzaren eta belar ziztrinen...»	(73)
<b>piura</b> 'itxura, planta'	«...bakarren batek zera esango zukeen ni <b>piura</b> horretan ikusita, sardea bizi-bizirik zegoela, halakoxe tentsioa neukan besoetan...»	(41)
<b>pizkortu</b> 'bizkortu, berpiztu'	«Izerditan blai iritsi nintzen tunelera, <b>pizkortzeko</b> paradatxoetan usain nazkagarri hura.»	(8)
<b>planta</b> 'itxura, piura'	« Bada ez, lagunok, guztiz akonjatuta nengoan, bikien aurrean <b>plantak</b> egiten banituen ere.»	(14)
<b>porlana</b> 'zementua'	«...ia zintzilic batzutan, aurretik nuela, atzetik nuela, bertara igota, <b>porlanezko</b> belarra, jaun-andreok.»	(64)
<b>sargori</b> 'bero astuna, lanberoa'	«...uztaileko arratsalde <b>sargori</b> batean ailegatu nintzen...»	(7)
<b>segan</b> 'dailua, kodaina'	«Hura <b>segan</b> eta ni eskuarearekin. Segaldi bakoitzean hondamendia hango bizidun tikientzat.»	(61)



<b>sen</b> 'zentzua, instintua'	«...baina jan egin behar zeozer, <b>senak</b> energia handia beharko nuela ziostan»	(16)
<b>sen atabiko</b> 'arbasoengandik datorkiona	«...animazio handia bertan eta aldameneko txoznan. Seguru asko <b>sen atabikoei</b> jarraituz gizonok taberna aldera jo genuen eta neskek...»	(86)
<b>simaaur</b> 'abelongarria, gorotza'	«Sartu ginen, belarra eta <b>simaurra</b> nahastuta sentitzen den fragantzia surtuloetan, eta hantxe zeuden, denak sukaldean.»	(11)
<b>soseguz</b> 'lasaitasuna, patxada'	«Horrela ihardun nuen, piskanaka, poliki eta <b>soseguz</b> bezain nerbioso, urduri eta desasosegaturik.»	(53)
<b>tapaki</b> 'estalki, burusi'	«... bi ohe biki bikientzat eta erdian nire koltxoia, txukun-txukun jarria, izara urdinak eta <b>tapaki</b> gorrixka.»	(13)
<b>txikar(ra) egin</b> 'piper egin, sasieskola' egin	«Hirugarren klase-eguna, bigarreanean <b>txikarra eginda</b> »	(68)
<b>txirtxilatu</b> 'desegin, birrindu'	«...eta nolaz ez zuen klasean abererik zatikatzerik, deklinabidea eta aditzak <b>txirtxiltzen</b> zituen.»	(70)
<b>uher</b> 'zikina, lohia'	«...balde zahar mailatu bat hartu, putzuetan bete, eta ur <b>uher</b> haietan lurra eta harri-tintxarrak bota nituen.»	(101)
<b>ukuilu</b> 'ikuilua, korta, behitegia'	« <b>Ukuilu</b> horietan zikinkeriak, urte mordoan bazter guztien jaun eta jabe, heroi baten iharduna...»	(77)
<b>urratu</b> 'ibiltzen hasi'	«Berriz hasi zen baltseoa eta Pablok <b>urratutako</b> bideari ekitea erabaki nuen. Claudiarengana joan nintzen...»	(94)
<b>uxatu</b> 'aldendu, haizatu'	«Ku-kux-klanaren eraso txiza-jaurtitzailak sortutako egonezina <b>uxatzeko</b> aproposa zelakoan denok sarrarazi gintuen gure irakasle ...»	(90)
<b>zabuka</b> 'kulunka, alboka'	«zartada latza hartu zuen "Mekauen las tetas de Santa Agueda"-rekin, <b>zabuka</b> "Mekauen los cuernos de San José"rekin eta K.O....»	(72)
<b>zabukari</b> 'kulunkaria'	«John Waynek nola botatzen zituen gaiztoa <i>Salooneko</i> ate <b>zabukarietatik?</b> Ba, holaxe joan nintzen hankaz gora...»	(91)
<b>zahato</b> 'zahagia, xahakoa'	« <b>Zahatoa</b> , ogia eta txorizoa. Lagun maiteok, nik ez nekien, eta ez dakit, zahatotik edaten.»	(61)
<b>zaildu</b> 'gogortu, trinkortu'	«Eskuak <b>zaildu</b> , hankak Harrialde-Alkiza zirkuitoan sendotu, batua eskolan aberastu eta Morgani azken egunerarte hostiarik ulertu ez.»	(107)
<b>ziztrin</b> 'purtzila, mengela'	«...laurehun metrora beste bat zegoen, zahar-zaharra, pitzaduraz josia, armiarna-sareen, huntzaren eta belar <b>ziztrinen</b> mende.»	(73)
<b>zuntzun</b> 'ergela, geldoa'	«Ez naiz sekula "behifilo" izan, aurpegi <b>zuntzun</b> horiek, behi-aurpegiak, jakina, behiak, bej!»	(13)